



ERREALISTAK IZATEKO, EGOERA ERREALETIK ABIATU BEHARRA DAGO. ETA ZER ERREALAGO ETA GORDINAGO CARITAS-EK BERAK ARGITATATU DUEN AZKEN AZTERKETA BAINO: EAE-N 334.000 PERTSONA SOZIALKI BAZTERTUTA DAUDE ETA 90.000 PERTSONA "GIZARTE EXPULTSATUA"-REN PARTE DIRA

@Josebapermach



EGIA ESAN, EZPELAREN SITSAREN TANKERA DAUKA HUMANITATEAK. BIZITZEKO BEHAR DUEN EKOSISTEMA SUNTSITU EGITEN DU, IZURRITE BAT BALITZ BEZALA

Mikel Peruarena Ansa (Berria)



CARLOS GARAIKOETXEA LEHENDAKARI OHIAK GAL-I BURUZKO INFORMAZIOA GORDETZEN ARI ZELA LEPORATU ZION EAJ-RI. EAJ-REN ETA PSE-REN GOBERNUAREN ZUTOINAK ASTINDU ZITUEN TALDE PARLAMENTARIOAREN SORRERA SOSTENGATU ZUEN EUSKO ALKARTASUNAK. ARDANZAK "OPOSIZIOAREN TIK" GISA IZENDATU ZUEN HORI. ETA PSOE-K EAJ-REN LAGUNTZA ESKATU ZUEN

@Ahoztar1972



"FEMINISMOAREN SUBJEKTUA EZ DU ZEHAZTEN EZ SEXUAK EZ GENEROAK, POLITIKA FEMINISTAK BAIZIK"

Marta Brancas
(@pikaramagazine)



20 urte erreforman

XABIER LETONA

2001: IBARRETXE PLANA

Ibarretxe Lehendakariak 2001eko irailean Gernikako Estatutua erreformatuko zela iragarri zuen. 2004an Estatutu Politiko Berria onartu zuen Eusko Legebiltzarrak. Batasunak gogor egin zuen planaren aurka, baina azkenean Legebiltzarrean behar zituen aldeko hiru botoak eman zizkion. Espainiako Kongresuak berretsi behar zuen, baina honek eztabaidarako ere ez zuen onartu.

2006KO URRIA: ERABAKI ESKUBIDEA LOIOLAN

ETAren su-etenaren baitan, EAJk, PSE-EEk eta Batasunak elkarriketa politikoak izan zituzten Loiolako Santutegian. Lortutako aurreakordioan onartu zuten euskal herritarren erabakitze eskubidea eta EAEn eta Nafarroaren arteko organo bateratua. Azkenean akordio hura ez zen sinatu.

2008KO KONTSULTA

Ibarretxe Lehendakariak bere estatutu berritua kontsultara eraman nahi izan zuen, baina Espainiako Konstituzio Auzitegiak debekatu egin zuen. Hor amaitu zen Ibarretxe plana. "Josu Jon Imazen EAJk" ere -hala deitzen zuten hedabide uniones- tek EBBko lehendakaria- ez zuen ezer egin Estatutu Berriarekin jarraitzeko eta jeltzaleek historiaren tiraderan sartu zuten.

2012: URKULLU ETA ORTUZARREN EAJ

EAJk Iñigo Urkullu aurkeztu zuen lehendakartzarako eta bere hauteskunde programan legealdiaren amaierarako Gernikako Estatutua berritzeko proposamena aurkeztuko zuela agindu zuen. Ez zuen agindua bete.

2016KO EUSKO LEGEBILTZARREKO HAUTESKUNDEAK

EAJk legealdi amaierarako estatutuaren erreforma proiektua egina izango zuela agindu zuen berriz bere hauteskunde programan. 2018an EH Bildurekin oinarri buruzko aurreakordioa ere lortu zuen, baina berau testu idatzi batera eramateko ardura aditu talde baten esku utzi zuten. Urtebeteko lanaren ondoren, EAJk, EH Bilduk, PSEk, EPk eta PPK izendatutako ordezkariak ez dute testu bateraturik lortu eta testu nagusia berriz geratu da alderdien esku.

2020: BERRIZ HAUTESKUNDEAK, BERRIZ ERREFORMA

Hauteskundeak egingo dira eta EAJk berriz aginduko du hauteskunde programan Gernikako Estatutuaren erreforma egingo duela. Urkullu lehendakariak dio egingandako proposamena "bideragarria" izan behar dela. ●